

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-132 errepedearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko uztailaren 23an egindako bilkuran, 483/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“A-132 errepedearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikitze proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Okupazioa presazko deklaraztea. Kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 17ko 279/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-132 errepedearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikitze proiektua”, bai eta proiektu horrek erasaten dituen ondasun eta eskubideak banan-banan eta zehazki jasotzen dituen hasierako zerrenda ere. Espedientea jendaurrean jarri da, eta ez da alegaziorik aurkeztu horretarako ezarritako epean.

Espedientea jendaurrean egon den aldian egindako egiaztapenen arabera, bidezkoa da onestea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda (Erabaki honen eranskinean jaso da). Ofizios zuzendu da eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrendan ageri den 3/000 finkaren aprobetxamendua -baratzea, lehorreko laborearen ordeztu.

Horrez gain, bidezkoa da adieraztea ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, horren okupazioa presazko deklaratu behar da. Ildo horretatik, “A-132 errepedearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikitze proiektua”n aurreikusitako jarduketa jasota dago 2016-2027 Arabako Errepideen Plan Integralean, zeina martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez onetsi baitzen; zehazki, “Egokitzapena” programaren baitako “Zeharbitzeak hobetzea” azpiprogramaren barruan. Programa hori 2017-2028 aldirako onesteke dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen III. Plan Orokorren zati da. Horregatik guztiagatik, presazkoa da aipatu diren ondasunak eta eskubideak okupatzea, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen hiru garren xedapen gehigarriarekin.

Premiazko jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak 46 1.b) artikuluan xedatutakoari eta otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepedeak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia Erkidegoko Erakundearen eta Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 8. artikulua ezartzen

dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Era berean, adierazi behar da erakunde horren barruan Foru Gobernu Kontseilu honek duela eskumena desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko eta horiek okupatu beharra adierazteko, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.26) artikuluan eta otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Eta horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, bat etorri diputatu nagusiaren ekainaren 14ko 270/2019 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa. Onespina ematea "A-132 errepidearen Azazetako (Araba) tartea urbanizatzeko eraikitze proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari (honekin batera doan eranskinean jaso da).

Bigarrena. Adieraztea ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra dagoela, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Hirugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan ageri diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, beraz, desjabetze espedientea izapidetzeari ekitea, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez.

Laugarrena. 14.110,99 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-3155/000.19.5.19), eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetzaren Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da, eta beti ere Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Seigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda zein muga ezartzen duen abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikokoaren 2018rako aurrekontua gauzatzekoak, 16.1.a) artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arraia-Maeztuko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

A-132 ERREPIDEAREN AZAZETAKO (ARABA) TARTEA URBANIZATZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA
 PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE URBANIZACIÓN DE LA CARRETERA A-132 ASU PASO POR LA LOCALIDAD DE AZAZETA (ALAVA)

Esp. Expte. 2019/4

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTRERAKO DATUAK | | UDALERRIA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA.m ² | | EGUNA | ORDUA |
|--------------|---|---------------------|----------|-------------------|---|---------------------|------------------------------------|-------------|----------|-------|
| | | POLIGONOA | LURZATIA | | | | BEHIN-BETIKOA | ZORTASUNA | | |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL TITULAR | DATOS CATASTRALES | PARCELA | TERMINO MUNICIPAL | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | SUPERFICIE AFECTADA.m ² | SERVIDUMBRE | DIA | HORA |
| 1000 | RAFAEL MUÑOZ FERNANDEZ | 4 | 14 | ARRAIA-MAEZTU | BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL | | 134 | | 17/09/19 | 10:00 |
| 2000 | ALVARO ORDONANA SAEENZ M. JOSE LLERA MARTIN | 4 | 3 | ARRAIA-MAEZTU | BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL | | 23 | | 17/09/19 | 10:45 |
| 3000 | DIONISIO MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA CELESIO ENRIQUE DE SAN VICENTE OGUETA MARIAN MUÑOZ DE SAN VICENTE OGUETA CARLOS MARTINEZ DE SAN VICENTE OGUETA | 3 | 227 | ARRAIA-MAEZTU | BARATZEA / HUERTA | | 109 | | 17/09/19 | 12:00 |
| 4000 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE AZAZETA | 3 | 9 | ARRAIA-MAEZTU | BIZITEGI-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL | | 67 | | 17/09/19 | 12:45 |